

UDAL MERKATUETAKO ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASAREN ZERGA ORDENANTZA ARAUPETZAILEA. 2018. URTEA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.-Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunen Foru Arau erregulatzaillearekin bat etorritz, udal merkatuetako zerbitzugintzagatiko tasak ezartzen eta eskatzen ditu.
2. Artikulua.-Ordenantza hau udal mugarte osoan ezartzen da.

ZERGA EGITATEA

3. Artikulua.- Zerga egitatearen zerbitzuak egitean datza, eskatu delako edo partikularren ekintzagatik edo ez egiteagatik eragin delako.

SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua.- Subjektu pasiboak dira, zergadunen kontzeptupean, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituzten Zergei buruzko Foru Arau Orokorrari jasotzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, eta zerbitzu edo jardueraren onuradun direnak ere bai.
5. Artikulua.- Tasa ordaindu behar dute, udal honek egindako zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak, edo hauen onuradun direnak.

SALBUESPEN ETA HOBARIAK

6. Artikulua.-Foru Arauetan aurrikusitako salbuespen eta hobariak baino gehiagorik ez da emango.

ZERGA OINARRIA

7. Artikulua.- Zerga oinarria atzematen diren metro karratuen arabera zehazten da.

KUOTA

8. Artikulua.- Kuota sortzen den oinarriari dagokion tarifa ezarriz zehaztuko da.

SORTZAPENA

9. Artikulua .- Tasa zerbitzua edo jardueraren egitean sortzen da.

LIKIDAZIOA ETA SARRERA

10. Artikulua .- Udal Administrazioak likidazioak egingo ditu hileru, bendejadunek izan ezik, hauen kuota egunerokoa izango da eta.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta Eranskina 1999ko irailaren 23an onetsi ziren, 2001eko irailaren 28an, 2003ko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2005eko azaroaren 25eko, 2006ko abenduaren 22an, eta 2007ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta indarrean jarraituko dute bere aldarazpena edo indargabetzea erabaki arte

ERANSKINA

Areetako Merkatua

Saltoki guztiak m²ko 8,22 **euro**

Bendejerak Merkatuan m²/eguneko 0,76 **euro**